

Ateak zabaldu berriak dituzten sagardotegiek urtaro berria gogo handiz hartu dute

EGUNKARIA
27-1-91

Hirurogeitik gora dira Euskal Herrian tradizioari tinko eusten diotenak


Kupelatik datorren sagardoa aukeran dago oraintxe, Gipuzkoan batipat. Gainerako eskualdeetan azalpen bakanen bat egon arren, Astigarraga ingurunea da denboraren joanean maitekiro gorde den tradizio honen buru, bertan hogeitaz sagardotegitik gora zenbatu bait ditugu. Apirila bitartean, kupelaren inguruan makina bat erronda egiteko aukera izango da.

J. GARMENDIA / DONOSTIA

«Norberari gehien gustatzen zaion sagardoa, huraxe da onena» esanaz diplomatikoki erantzuten ditu kalitatearen gaineko zalantza eta eztabaida guztiak Irizarrek, halere, aurtengo sagardoarekin jendea «oso gustora» dagoela gehitu du, badaezpada ere. Dena den, azkenaldian netan sagardoaren inguruko zaletasunak gora egin duela bistan dago nahiz eta 1.908an zeuden 800 sagardotegiek, denboraren poderioz desagertzeraz jo dutenak asko zirela azaldu.

Gaur egun Euskal Herri mailan dagoen defizita dela eta urtero otarrak gainezka betetzeko arazoak badituzten galdegitean baikor azaltzen da, sagardoegilea «azken urteetan ez bezalako sagar eskasia izan da aurtengalizia zein Asturiasen eta hargatik Normandiatik ekarri behar izan dugu gehienbat». Ekoizpenaren alorrean ere ondo samar ari dira sagardozaletak, aurtengalizia bost bat milioi kilo sagarretan aterako bait dira. Gipuzkoatik milioi eta laurden eta gainontzekoa Normandia eta Galizia aldetik ekarritakoa. «Sagarrei dagokionez urte txarra izanik, iazko aldean desberdintasun nabarmenik ez izatea ez da gutxi» dio baikor Irizarrek.

Duela hiru urte jabetu ziren sagardozaletak publizitatearen garrantziaz eta orduantxe hasi ziren kanpainak bideratzen, hartara merkaturazabaltzeko estrategiaren bilakuntzan lanean jarri ziren baina arazoak beste ildo batetik datoz, Irizarrek esan bezala «sagardoa hain produktu naturala izanik finkatu gabe dagoelako». Gipuzkoako sagardozaletak gehien-



P1-18

Sagardoa gorantz egiten ari da Joxe Maria Irizar, Gipuzkoako Sagardo egileen elkartearen lehendakari dioenez, «nekez baino seguru».

tsuenak Joxe Mari Irizarrek zuzentzen duen elkarte batean antolatutako daude, baina honetaz gain bada Astigarraga aldean lau sagardotegiez osatutako beste talde bat. Orain dela zazpi urte bereiztu ziren bi taldeak, edariaren gainean erizpide kontrajarririk horrela agindu zutelako.

GOIZEAN, BAZKALORDUAN, ARRATSALDEAN Edariaren izaerari buruz, «goizean, bazkalorduan nahiz arratsaldean edan daitekeela dio sagardozaletak. Honetaz gain, jendeak gero eta gradu gutxiagotako edarietara jotzen duela eta sagardoak sei zazpi gradu inguru dituela kontutan hartuz, Irizarren ustez «aise edan daiteke».

Sagardotegiak eta marketinga

J.G. / DONOSTIA

Komunikabideetan sagardoaren kontsumoa zuztatzeko burutzen ari den publizitate kanpainak laugarren urtea egingo du aurtengalizia. Egunkari, irratia eta kartelek etengabe ematen dute sagardo naturalaren berri. «Euskal Herri osoan eman nahi da ezagutzera sagardoa», Migel Angel Saenz Gipuzkoako sagardogileen elkartearen etnologoaren esanetan, «hartara jendearen artean sagardoa edateko ohitura zabal dadin». Publizitate kanpaina hauen atzean dagoen kezka nagusia ondo baino hobeto azaltzen du etnologoaren adierazpenak, «tamalgarria liteke, hemen dik sei urtetara, egungo sagarren eskasia gaintu eta sagardoa edateko ohiturarik ez izatea». Sei urte barru, sagarren urritasuna gaintu ahal izango dela uste du Saenzek eta gerora begira, baikor azaltzen dira sagardogileak.

Jatetxearen egungo funtzioari dagokionez, «jattetxe arruntak ez bezalako xarma du sagardotegiak zein kupelak, aldamenek sekula santan ikusi ez den bakarren bat jazarri eta sagardoaren inguruan giro familiarra eratzen da».

Sagardo ona eta txarraren artean bereizteko ez omen du aparteko zeremoniarik behar Irizarrek, bere ustez, norberaren eritzia erabateko bait da. «Jendea itxurazko sagardoa emanez gero ez du exigituko, gainera, batentzako ona dena igual bestearentzako ez da izango», hargatik, sagardo onenaren inguruan galdezka etortzen zaionari, «norberak gustokoen duen sagardoa, huraxe da onena» erantzuteko ohitura dauka.